

ZENBAT BURU

Ion Loiola

ERREPORTAJEA

EPA,

Helduentzako

Heziketa Iraunkorra

BARRI

1999ko urriaren 15a
VII. urtea - 294. zkia

E L G O I B A O A S T E K A R I A

BERBETAN

Vicky Alcalde



KIROLA

VIII. Txirrindulari

igoera San Pedrorra



Helcuent". (1 e71 eta

Ikastek kula

ez da berandu

"Dakienik ez da inor jaiotzen" (Esaera zaharra)

SEQUITASUN OSOAZKIN



BERRIA

tis.

Familiarentzako aseguru eta zerbitzu planik osatuena eta berriena.

MAPFRE
ASEGURU OROKORRAK

San Frantzisko, 40 • Tel. 943 74 05 82 , <http://www.mapfre.com>

EUSKARA IDATZIA **hobetzeko**

1 K A S T A 1=1 CD ink

NORENTZAT:

Enpresa, elkarte eta erakundeetako idazkari eta bulegarientzat.
Interesa duen edonorentzat.

HELBURUA:

Euskaraz errazago eta hobeto idazten ikastea.

NOIZ:

Azaroko asteazken eta ostegun arratsaldeetan.

1RAUPENA:

16 ordu (teoria eta praktika).

EDUKIAK:

Gutunak, bilera-deiak, ziurtagiriak, gonbidapenak,...
Akatsen zuzenketa, itzulpen-arazoak,...
11 Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak.

ANTOLATZAILEA:

GUREAN BAI

Euskararen Aldeko Hitzarmena.

1KASTARO-EMAILEA:

DEBABA Udal Euskaltegia.



EIZOZIARRO LEARRA
Kubur Elkaria



GUREAN BAI
Euskararen Aldeko H11.0111101.1



ELGOTARRO UDALA

Interesik baduzu, deitu telefono honetara:
943 74 17 46 (Abei)



ION LOIOLA

Atal hau ez da BARRF, Nen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu konluan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Dagoenekoz udazkena iritsi da. Eguna poliki poliki mozten doa. Mendian garai honetako usaina nabari da. Gizartea neurri batean neguari aurre egiteko prestatzen ari da. Udak pertsona askori bere bizitzan zerbait desberdina egiteko eta lasaitzeko aukera ematen dio, horretarako oporrak hartuz. Baina opor garaia joanak dira, bat baino gehiago hurrengo urtekoak noiz iritsiko pentsatzen ari da eta bitartean negua dugu, negu luze eta beltza.

Uda pasatu da, langileak dagoenekoz lanpostuetan lanean egongo dira, aldiz, ikasleak beren eskola eta unibertsitateetara joaten hasiak izango dira. Hauentzat uda oso polita eta atsegina izango zen, edo behar bada ez, ekainean utzitako edo gainditu ezinezko gaiak uda honetan beraien bizitzetan larritasun eta neke ugari emanak izango dira. Ikasle hauek neurri batean ikasketen zama udara osoan beren bizkar gainean eraman behar izan dute. Askotan eguraldi ona egin arren etxean gelditu behar, beren apunteen aurrean oporren eskubidea bere osotasunean disfrutatu ezinik. Hau gutxi balitz gazte ugari beren eguneroko bizitzan dituzten gastuak neurri batean ordaintzeko ikasketez aparte lantxoren bat ere egiten dute.

Iraileko azterketak etorri dira eta gaindituz gero, izugarriko poztasunarekin kurtso berriari aurre egiteko prest baina aldiz, irailako azterketak ongi atera ezean uda osoan bakoitzak sarturiko orduak bizkar gainean hartuz datorren neguari aurre egin behar.

Trtitea

Hala ere, idazten ari naizen honetan lagun zaitudan ikasle horri animozko bi hitz luzatu nahi dizkizut:

a) Iraileko emaitzak zuk nahi bezalakoak ez izateak atsekabetzen bazaitu, garbi eduki zure atsekabe hori neurri batean neure barnean bizi dudala.

b) Ikastea bertutea eta eskubidea da, honek pertsonalki ezagutza ugari ematen baitugu, eta honi esker heziketa orokor batez gain, etorkizuneko bizitzan lanpostu posible baterako atea irekitzen dizkigu.

d) Pertsona moduan hazten lagunduko zaitu. Ikasketen eta eskolaren inguruan dituzun lagunek, esperientzia berriek, informazioa iristeko aukera, beraz, informatzeko hainbat baliabide edukitzea, bizitzaren inguruan jende askoren iritziak eta esperientziak ezagutzeak... Honek guztiak pertsona moduan hazten laguntzen dizu, eta heldutasunerako bidean pauso sendoak ematen.

Bukatzeko bi gauza gogora ekartzea nahi nituzke:

a) Gauza guztien gaintik pertsona dagoela eta gainontzekoa pertsonaren zerbitzura

b) Ikasketetan azterketak ez gainditzeak sortzen duen frustrazioa gainditu egin behar da. Batzuetan denbora igarotzen uztea nahikoa izan daiteke. Hala ere, hau honela ez bada, aurrera jarraitzeko motibazioa aurkitzen ahalegindu behar da. Kontutan izanik, bakoitzak bere barruan dituen balioak zeintzuk diren ikustea oso positiboa izan daitekeela askotan, konturatu gabe garena baino garrantzi gutxiago ematen bait diogu gure buruari.

Barrak, Birkak eta Barreak



©KCKOE 99•75



Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

z 943 74 41 12

Publizitatea:

2 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgolbarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegi, Asler Orbea
PUBLIZITATEA	Mallane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADINIINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, IdoiaArozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaudaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz,
lagundutako
aldizkaria.*



gizarte-ekintza

MDANOBAT

GRUPO DANOBAT

BARRENen oharra

Dagoeneko konturatuko zineten aste honetako alea dezentte finagoa dela. Izan ere, bate-tik, Pilar Egunekeo jaia izan genuen asteartean, eta bestetik, osasun arazoak izan ditugu lantaldean. Bi arrazoi hauek direla-eta, astekariko hainbat atal kendu behar izan ditugu.

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

GALDERAK

• Irakurle batek honako galdera hau egin digu, "Jende askok erabiltzen ditu Trenbide kalean aterpean dauden eserlekuak, udazken partean batez ere. Herriko beste **eserleku asko, berriz, aterperik gabe daude eta ezin dira erabili euria egiten duenean. Udalak ba al du eserleku gehiago aterpean jartzeko asmorik?** Leku Ederreko baxuetan, parkearen ondoko arkupean, esaterako, leku aproposa iruditzen zait eserleku batzuk jartzeko".

Udaleko Hirigintza sailetik honako erantzun hau jaso dugu, "herriko leku askotan falta dira eserlekuak. **Momentuz, eserlekuak jartzeko eskari gehien dauden tokietatik hasi gara.** Denborarekin eserlekuak behar dituzten herriko beste bazterretara ailegatzeari da gure asmoa. Leku Eder parkeko bankuei dagokionez, Musikeskola-ko lanak amaitzean hasiko gara eserlekuak jartzeko".

KEXAK

• Urasandiko bizilagun batek honako kexa hau kaleratzeko eskatu digu: "N-634 **errepide nazionaletik Urasandi auzora dagoen sarrera oso arriskutsua da. Irteeran dagoen zanga urez beteta egoten da eta autoak irristatu egiten dira.** Urasandirako norabidean dagoen lehenengo errebuelta ere oso labankorra eta arriskutsua da. Gorago dagoen biurgune batekin egin zuten moduan, asfaltoa pikatzea ideia ona izan daitekela iruditzen zait. Badakit gune hontan eta beste batzuetan errotondak ipintzeko asmoa dagoela, baina bien bitartean istripuak izateko arriskua handia da. Euria egiten duenean susto bat baino gehiago izan ditut".




• Eserlekuei buruzko kexa bat baino gehiago heldu zaigu BARREneko erre-dakziora: "Leku **Eder parkean eserleku baten bizkarraldea apurtu zen udan, eta oraindik inork ez du konpondu. Plaza Handiko banku batekin ere berdina gertatu zen.** Pertsona nagusiok, eta batez ere gure bizkarrezurrek, izugarri eskertuko genuke eserleku horietako bizkarraldea konpontzea".

• Herritarren segurtasunaz kezkatutako gaztetxo fin batzuek honako kexa hau helarazi digute "San **Roke auzuan, Karakate Elkarte eta Aterpe jatetxea dauden parketxoko barandaua jausi biharrian dao.** Nahi dabanak jun eta ikustia daka".


ESKERTZA

*1999ko urriaren 8an, 93 urte zituela hil zen **REMEDIOS BERECIARTUA ARAMBERRI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*




ESKERTZA

*1999ko urriaren 9an, 65 urte zituela hil zen **FIONORIO FERNANDEZ MORENO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Ikosteko sekula ez da berandu

Aste honetako erreportajeko protagonistak ikasleak dira. Ez dira ikasle arruntak, ordea, Helduanzako Heziketa Iraunkorreko (EPA) ikasleak baizik. Duela 7 urte, alfabetatze klasetatik hasita, eskola-graduatuak eta kultura hedatzeko kurtsuak eskaintzen dira Muguruzako ikastetxe zaharrean. Aurten, 20 pertsonak eznan dute izena dohaneko kurtsu hauetan. Helduentzako zentruak nola finantzionatzen duen jakiteko bertarajo dugu eta ikasle eta irakasleekin hitz egin dugu.



Muguruzako ikastetxe zaharrean duten ikasgelara helcfu ginenean ikasle gutxirekin egin genuen topo. Ikasle gehienek lan egiten dutenez, askotan klaseetara huts egin beharra izaten dute. Gainera, gutxiian egoten direla guztiak batera esan digu Marian Hernandez EPAko irakasleak, "lana eta familia direla-eta, klase guztietara etortzeko gutxi dute denbora soberan".

KURTSOEN EZAUGARRIAK

EPAko ikaslea izateko baldintza bakarra 18 urte baino gehiago izatea da. Nagusien alfabetatzeaz gain, hau da, irakurtzen eta idazten irakastea, eskola-graduatu eta kultura hedatzeko kurtsuak eskaintzen ditu Elgoibarko zentruak. Goragoko mailako kurtsuak jaso nahi izanez gero, Eibarren dago EPAko zentru nagusia eta zuzendaritza. Bertan 25 urteko gorakoentzat unibersitatara sartzeko kurtsuak ere eskaintzen dituzte. Hasi berriek matematika eta linguaia ikasten dituzte, eta aurreratuago daudenek, natur zientziak, gizarte zientziak edo geografia, besteak beste. Kurtsuak dohanekoak dira, eta klaseak egunero izaten dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

IKASLE MOTIBATUAK, IRAKASLEEN

laz, bi irakasle zeuden, baina aurten batekin nahikoa izango dela erabaki dute. Ikasle bakoitzak bere maila eta erritmoa duenez, Maria-

nek, bananbanako jarraipena egiten die. "Sartzeko, maila-frogak egiten dizkiegu eta emaitzen arabera taldeetan banatu. Hori dela eta, gehiago kostatzen zait klaseak prestatzea ematea baino". Marianek 29 urte egin ditu irakaskuntzan, "haurrekin eta helduekin aritu naiz urte hauetan, baina berriz ere haurrekin hastea asko kostako Itzaidakela uste dut, helduekin ohitu egin bainaiz. Helduei klaseak emateak poz handia ematen dit. Motibatuago eta gogo handiagoz etortzen dira ikastera. Norbera ere gehiago motibatzen da, eta ez dago euren atzetik ibili beharrik. Nola aurreratzen duten ikustek ere poz handia ematen dit. Gainera, gure arteko erlazioa oso ona da. Edozein gairi buruz hitz egiten dugu, eta baita afariak eta txangoak elkarrekin egin ere".

EPAko ikasle gehienek haurtzaroan eta gaztaroan ez zuten eskolara joaterik izan, beste premia batzuek baitzeuden garai haietan. Helduentzako Hezikuntzak, galdutako aukera hura berreskuratzeko bidea ematen die. Ikasleek aho batez esan digutenez, "gauza berriak ikastetxeko gogook bultzatuta hasi gara ikasten". Raraela Arcos, adibidez, aurten hasi berri da eta berak azcrfdu digun moduan, "daukagun adinean gure asmoa ez da karrera bat ikastea. Helburu apalagoak bultzatuta hasi gara eskolan. Kontserba pote batean ipintzen duena ulertu, erosketen zerrenda egin edo antzerako gauza arruntak ikastearekin nahikoa dugu. Gainera, gaur eguneko bizimoduan beharrezkoa da idazten eta irakurtzen, gutxienez, jakitea".



**EMAKUMEAK
AUSARTAGOAK DIRA**

20 ikasle daude aurten matrikulatuta. 12 alfabetatze kurtsoan ari dira eta gainontzekoak, berriz, irakurtzen hasi berrientzako kurtsoan, maila bat gorago, alegia. Ikaslerik zaharrenak 74 urte ditu eta gazteenak, berriz, 47. Atentzioa eman digu guztiak emakumeak izateak. Marianek azaldu digunez, "gizonek euren gabeziak ezkutatzeke joera dute. Gaztetan emakumeen antzeko zailtasunak jasan arren, berriz ere eskolara itzultzeak lotsa gehiago ematen die. Emakume gehienak, berriz, ausartagoak dira eta errazago onartzen dituzte dauzkaten gabeziak". Ikasleak bat datoz Mariarekin, "gure adinekoei ikastera goazela esaten diegunean, adin horrekin eta ikastera! harritzen dira, eta zertarako nahi dugun gehiago jakitea galdetzen digute. Lehen ez genuela aukerarik izan, eta orain ikasteko gogoak dugula erantzuten diegu". Momentuan ikasle guztiak emakumeak izan arren, aurreko urteetan gizonezkoak ere izan dituztela aipatu digu Marianek, "gizonezkoak izan ditugunean oso gustora etortzen ziren. Hasierako urteetan gazte gehiago ere izan genuen. Agian gerta daiteke gure kurtsoei buruzko informazio falta handia egotea. Ikasle askok aipatu digute EPAren berri izan balute, lehenago hasiko lirakekeela".



Hernandez irakasleak 29 urte darantazki irakaskurtzan. Azken urte hattetan helduen heziketan arita izan da, batipat.

Asuncion



"**K**lannok famili handi bat osatzen dugu. Oso ongi konpontzen gara elkarrekin".

wesmirw gustatzen zait idaztea eta irakurtzea, noren laguntzarik gabe ikasi nuen. Hala ere, irakurtzen jakin arren, gauza askoz nifuela behar'llzala ulerizen konturatu nintzen. Helduentzako heziketan izena ematea erabaki riuen inoiz ez baita berandu ikasteko eta ez naiz batere damutu. Klaseko laggnok famili handi bat osatzen dugu .Oso ongi konpontzen gara elkarrekin". Matematikak asko gustatzen zaizkiola esan digu, eta ikasten jarraitzekotan adminitraria izatea ez legokela gaizki aipatu digu.

Asuncionek 58 urte ditu eta hirugarren urtea izango da aurtengoa. Sartu zenean mailarik baxuenean hasi zen baina egun asko aurreratu du eta Elgoibarren ematen diren kurtsoetako maila aspaldi gauditu zuen. Hala ere, Eibarko zentrura joaterik nahi ez duenez, gelokideen mailara egokiizen da. "Marianek niretzako ariketak prestatzen ditu eta horrekin nahikoa dut. Oso gustora etortzen naiz hona eta ez dut lekuz aidaizerik nahi". Asuncionek, 9 urterekin utzi zion eskolara joateari, baina bere kasa ikasi zuen irakurtzen eta iclazten. "asko

Isabel Martin



Isabelek urte dexente daramatza helduen heziketan ikasten, baina lana dela-eta, dezentetan egiten du kale. "Askotan etorri ezin naitekeenez, erritmoa galtzen **erz**ailagoa da ikasitakoa gogoan izatea". Gaztetan eskolara joateko aukera gutxi izan zuela aipatu digu, "10 anai-arrebetatik zaharrena nintzen eta nire ardura beraiek zaintzea zen. EPAhasi nintzenean, hizkiakwizenbakiak ezagutdbaguizen nituen, baina ez nekien ez idazten ez eta ongi irakurtzen ere. Oraindik ik **sko** badut **41N11***

"**G**ero eta akats gutxiagore **et** iten dituzula ikusteak **poz** handia ematen du, **z**irraraourria da".

ere, dezente hobetu dut. Egunero zerbait berria jakinda oheratzea **bez**alakorik ez dago. Gero eta **aM** gutxiago egiten dituzula ikurlak **noz** handigematen du zirraraourria da. "Seme-alabak gustura daude berriz ere **eskolara** hasi naizela-eta. Noizean behin ariketa batzuk zuzentzen dizkidate. Klasean azaldu eta argi geratu ez zaizkidan gauzekin ere laguntzen didate".

Umetan izan 1] zenuen Iztiva joaleko



TEODORA ELUSTONDO
64 urte, etxeoandrea

Bai, 14 urte bete arte jun nitzan eskolara. Gurasuak saiatu zian edukazio ona ematen, baina bizimodua atera biharra zauan eta eskolara jutiari laga nion.



MARIA TERESA ABAD
64 urte, etxeoandrea

Bai. 22 urte bete arte Frantztan bizi izan naiz. Han, derrigorrezkoa zen eskolara joatea eta 19 urterekin utzi nion ikasteari. Gustora nago jaso dudana heziketarekin.



GABRIEL RUIZ
68 urte, jubilatua

6 urterekin hasi nintzen eskolan eta 12 urterekin utzi nuen. Ikasten jarraitzea nahi nuen, baina lanean hasi nintzen. Berriz ere hasiko nintzateke ikasten, baina ez dut astirik.



ANTONINA VICOSO
57 urte, etxeoandrea

Bai, baina 12 urte bete ane bakarrik. Ikastea ez zitzaidan gehiegi gustatzen eta utzi egin nuen. Denborarekin, defenditzeko adina ikasi dut. Iloben txanda da orain.



SALVADOR ZELAIA
66 urte, jubilatua

Ez, umetatik baserrixan lana in biharra zauan-eta. Soidadutzara jun arte ez nakixan ezkerria eta eskubixazein zian ere. Jakin biharrekua bizimoduak erakutsi dia.



ANTONIO MIGUEZ
60 urte, jubilatua

Aukera bai, baina gogoa gutxi, ikasle txarra bainintzen. Gurasoek eskolara bidaltzen ninduten, baina ez nintzen joaten. 13 urterekin utzi nuen eskola eta lanean hasi nintzen.



KAROBH
0211

San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37



ewibovilw

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Kontabilitate

- Lan

FiSla

URKIDI

AHOLKULARITZA

ITT ERCOS ASEGURROAK

Kalamuo, 12

ELGOIBAR

Tel-Faxa:

943 74 18 91

[19(DUTICUE GEL PASI

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

t San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ur 943 74 33 92 J

artzun mundua bir ka



Musika, herrien arimaren,
arnasaren eta sentipenen
adierazle,

MUNDUKO MUSIKA BILDUMA
arnasa horiek guztiak dantzan
pentagraman.

Erritmoak, musika maileguak,
mestizajea eta egungo
teknologiaren ekarpena
sustraiarekin bat eginda, iraupen
luzeko 12 diskotan.

Urriaren 17tik aurrera
ostegun eta igandeetan
EGUNKARIA + 550 pta. 22 lib.

Mundua ulertzeko...



Zure independentzia!

Elgoitaigko ausks...ga (2^{x1}) slide gehien firibertiten drler adaijan argeon Ikao

99an 41.477.477 pezeta inbertitu ditu, aurrekontu osoaren %3'1

ARGIA astekariak Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa bat kaleratu berri du. Bertan, 5000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko 61 udal hartu ditu, eta aurrekontu osotik euskarara zenbat zuzentzen duten aztertu du Jaurlaritzako lantalde batek. Azterketan azaltzen denez, Elgoibarko udala laugarren tokian azaltzen da Pasaiaiko udalarekin batera, eta aurrea hartzen dioten udalak Lezo, Aretxabaleta eta Arrasate dira, azken hau delarik euskarari proportzio handiena eskaintzen diona.

Euskara Zerbitzuko teknikaria den Kristina Zuazubizkarren esanetan, "beste udalerrietako aurrekon-



Lezoko, Aretxabaletako eta Arrasateko Udalen ostean, Elgoibarkoa da Euskarari diru gehien zuzentzen diona.

tuekin konparatuz datua baikorra bada ere, Elgoibarko Udalak aurrekontu osoaren %3'1 inbertitzen du euskararen arloan eta ez dut uste kopuru hori oso altua denik". Kristinaren

ustez, euskararen egoerak hobera egingo badu ezinbestekoa da udalak inbertsio garrantzitsuak egitea. Azkenik, zera gehitu digu euskara teknikariak, "bide onetik goazela uste dut baina oraindik ere egiteko asko dago eta horretarako beharrezkoa da dirua izatea eta ondo inbertitzen jakitea, lehentasunak eta beharrak non dauden aztertuz".

Amaitzeko, euskararen normalizaziorako izendatutako dirua zein ataletara doan ere jakin dugu. 9 milioi inguru pertsonal gastuetarako izaten da; 10 milioi pasa zuzentzen dira DEBABA

euskaltegira; dirulaguntzetan ia 20 milioi inbertitzen dira; eta azkenik, falta diren ia 3 milioiak beste gastu batzuetarako izaten dira.

154 elohornarrek eman dLLe ijzena euskara ikasiteke

Matrikulazio kopuruak gorantz egin du azken urteotako beherakada etenaz

Oraindik ere euskaltegiatiko matrikulazio kanpaina itxita ez badago ere, Udal Euskaltegiko eta AEK euskaltegiko arduradunak konforme daude lortutako ikasle kopuruarekin. Izan ere, azken bost urteetan matrikulazio kopuruak beherako joera izan du eta aurten eten egin da joera hau, igoera handiegia izan ez bada ere. Mailei dagokienez, nahiko ondo banatuta ikusten ditugu kopuruak. Beheko urratsetan (euskara gutxien dakitenak alegia) 73 lagun izan dira izena eman dutenak. Euskara poliki jakin arren gehiago ikasteko prest daudenak, berriz, 51 dira. Azkenik, 21 herritar izan dira izena eman dutenak EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) ateratzeko helburuarekin. Bestalde, bada euskaraz jarduteko helburuarekin sortu den 10 laguneko talde bat ere.



Erretratuetan iazko bi ikasle talde ikus ditzakegu.

Alfabetatzeko talderik ez

Bi euskaltegiatiko arduradunak kezkatuta daude alfabetatzeko talderik sortzen ez delako. Izan ere, urtea joan eta urtea etorri, alfabetatzeko taldea osatzea izaten da erronkarik zailena. Euren hitzetan, "jende asko dago Elgoibari alfabetatu beharrean dagoena, baina badi-rudi jendea ez dela horretaz jabetzen. Zenbat jende dagoen ohar sinpleena idazteko ere am-zoekin edo BARREN irakurtzeko zailtasunak dauzkana, baina ..."

23 ikasle talderik gabe

Amaitzeko, euskara ikasi nahi baina talderik gabe geratu diren 23 lagunak dauzkagu. Ordutegia ondo ez datorkielako edo eurentzako maila egokirik ez dagoelako, urtero-urtero geratzen da jende multzo bat euskara ikasi ezinik. Arduradunek esan digutenez, "hau urteroko arazo bat da eta oso soluzio zaila dauka. Pena handia ematen digu jende hau kalean lagatzeak baina oraingoz ez diogu ir-tenbiderik topatu".

Eignkrta (111110P enpresaren proieerall kEn l'Inharria Enpresa Sarien itgobages

Giltzen ordez memoriadun txartelak erabiltzeko proiektua aurkeztu dute

Ojnar S.A. enpresak aurkeztutako *serraila* elektronikoko baten proiektua izan da Eibarko X. Toribio Etxebarria Sarien irabazlea. Saria sormena eta eraberrikuntza teknologikoa atalean lortu dute. Elgoibartarren proiektuak, ohiko giltzen partez, 'chip' memoriadun txartelak erabiltzeko proiektua aurkeztu dute eta dagoeneko patentea ere eskaturik dute. Proiektu irabazleak jasoko dituen 9,5 milioi pezetek gain, behar duen garapen teknologikoa eta aholkularitza ere eskura izango ditu. Guztira 23 enpresak, beste hainbat proiektu aurkeztu zituzten sariketara. Horietatik 5 finalera iritsi ziren eta *Ojmar* enpresaren



'Ojmar' enpresak aurkeztutako proiektuak 9,5 milioi pta,ko saria irabazteaz gain, behar duen garapen teknologikoa eta aholkularitza jasoko ditu.

proiektua izan zen irabazlea. Toribio Etxebarria Sariak prestigio eta fama handia dute eta hau ikusteko antolatzaile leen zerrenda ikustea besterik ez dago: Eibarko Udala, *Tekniker* eta *BIC-Berrilan* enpresak, *EITB* eta *El Diario Vasco* dira antolatzaileak. Sari banaketa Eibarko Udaletxean izan zen urriaren 8an. Besteak beste, honako agintari eta enpresa gizonak hartu zuten parte sari banaketan: Roman Sudupe, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Josu Jon Imaz, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo

ruak, Iñaki Arriola Eibarko alkateak, Javier Goitia, APD enpresako zuzendariak eta Marisa Arriolak, *BIC-Berrilane*ko Zuzendari nagusiak.



Pilar Eguneko mezak eta *ltxsPopena'* abesbatzak eskainitako kontzertuak jende ugari bildu zuten Pilar ikastetxean

Asteartean, hilak 12, Pilar eguna ospatu zuten Pilar ikastetxean. Ospakizun nagusia meza izan zen. Benantzio parrokoak, Legarreta jaunak eta Angel Ipiñak gidatu zuten, azken biak San Viator kongregazioko apaizak dira. Ospakizuna ikastetxeko gimnasioan izan zen eta leporaino bete zen. Pilar Ikastetxeko ikasle, guraso, ikasle ohi eta inguratu ziren herritarrek atentziaz jarraitu zuten meza. Ondoren, eta gimnasioan bertan, *ltxsPopena'* abesbatzak kontzertua eskaini zuen. Azkenik, gurasoen batzordeak prestatutako luntxa dastatzeko aukera izan zuten bertara joan zirenek. Pilar ikastetxeko Eskola Elkartek eskerrak luzatu nahi dizkie Pilar Eguneko ekitaldietan parte hartu zuten guztiei.

• *Unceta* Enpresak 2,3 milioi pta. bidalike ditu Kubako eskola batera enpresaren 125. urteurrenean

Elgoibarren lantegi bat duen Eibarko *Unceta* burdindegia 125. urteurrena bete duela-eta, enpresako arduradunek ekitaldi berezia antolatu zuten Guggenheim museoaren ondoan pasa den astelehenean, hilaren 11an. *Uncetakoek* hiru kamioikada txatarra hustu zituzten Guggenheim museoaren eta Ibaizabal errekarren tartean. Protestaren bat izan zitekeela zirudien arren, guztiz kontrako asmoak zituzten ideia bitxi honen bultzatzaileak. Izan ere, *Uncetak*, bere bezero diren 400 enpresen emandako 70.780 kilo txatarra bildu, eta txatarrak balio duena halako bi bideratuko du Kubako Lanbide Heziketa eskola bat laguntzera. Bildutako txatarrak 1,15 milioi pezetako balioa du merkatuan. *Uncetak* bere urtebetetzea dela medio, txatarraren balioa bikoiztu du. Beraz, guztira 2,3 milioi izango dira La Habanako Gesta Lanbide Heziketa Eskolak jasoko dituenak. *Solidaridad Internacional* Gobernu Kanpoko erakundeak bideratuko du dirulaguntza, eta aipatutako eskola maki-herramintaz hornitzeko izango da.

Vicky Alcalde 29 urteko elgoibartarrak, trafik-istri-pua izan zuen 97ko urrian, pilarika egunean. Bizia osta osta salbatzea lortu zuen, baina, bunnuin zauri larri batek sortutako paralisi partzialak ezinduta utzi zuen. Burmuin zaurietan espezializatutako zentro pribatu batean hilabete batzuk pasa ostean, etxera itzuli be-ni da. Herritarrek hunkitu zituen Vickyren kasuak, eta guk zer moduz dagoen jakin nahi izan dugu. Istripuaren ondonoz Vickyk ezin du hitz egin, baina bere senarrak lagundu digu azken bi urte hauetan pasa behar izan dituztenak azaltzen.

VICKY ALCALDE

"Herritarrengeniil jase dugun Ilguntzarik gabe ezin izarge genukeen ezer ere egin"

—Lehenik eta behin, zer moduz dago Vicky?

Duela bi urte nola zegoen ikusirik, momentuz nahiko ondo dago. Gutxinaka bada ere, bere kasa moldatzeko gaitasuna berreskuratzen ari da. Lehen ohetik mugitu ere ezin zen egin. Orain, etxean oinez ibil daiteke. Gauza asko ahaztu zaizkio, eta hutsetik hasi beharra dauka. Gutxinaka bada ere, egunero zerbait berria ikasten du. Hasieran ez zuen inor ezagutzen, bere alaba ere BARREn ikusi zuen argazkian ezagutu zuen lehen aldiz.

—**Nolakoa izan da errekupe-razioa?**

Lehenik, 8 hilabete egin zituen ospitale publikoetan. Gero, Anusateko *Aita Meni* ospitale pribatuan burmuineko lesioak sendatzeko tratamendu baten be-ni izan genuen. Zentru honetan hobera egin dezaket gaixoak bakarrik onartzen dituzte. Gainera, hilabete-

ro gaixoen egoera aztertzeko ebaluazio bat egiten dute. 7 hilabete bertan pasa ostean, medede handia egin dio tratamenduak, baina urtarrilean, aurre-rapauso handiegirik nabari ez genuela-eta, etxera itzultzea erabaki genuen.

—**Oso tratamendu garestia izan da, ezta?**

- Bai. Aita Menin hilabete pasatzeak 800.000 pta.ko kostua du. Herritarrengandik jaso genuen laguntzarik gabe ezin izango genukeen ezer ere egin. Lerro hauen bitartez, jaso ditugun laguntza guztiak bihotzez eskertu nahi ditugu. Elgoibar, Mendaro, Bergara, Soralue eta beste hainbat lekutatik jaso dugun laguntza funtsezkoa izan da.

- **Zentru pribatu batera jo zenuten. Zeneukaten aukera bakarra al zen?**

- Tamalez bai, Vickyk ospitale publikoetan pasa zituen 8 hilabete luzeetan ez zuen hobera egin. Aukera probe-

txatuz, osasun sistema publikoa salatu nahi dut. Izan ere, seguritate soziala ez dago Vickyk behar duen erreabilitazio berezia eta pertsonalizatua eskaintzeko prestaturik. Tratamendu pribatua jasotzeko, beniz, dirurik ez duenak jai du. Sistema aldatzen ez dugun hitartean, etorkizunean Vickyren kasua askotan erre-pikatuko da. Jendearen elkartasuna izango da gaixo askoren laguntza bakarra.

—**Une honetan zer behar du Vickyk?**

- Hitz egiten herriz ere ikasteko Iogopeda baten beharra dauka, baina arazo asko ditugu bat bilatzeko. Egundiz bera zaintzeko zentro edo erizain haten bila ere ari gara. Bere egoera hobetzeko askatasun eta aukera gehiago izango luke. Laguntza psikologikoa ere behar du, depresio arazoak izan baititu. Hala ere, garrantzitsuena orain arte lonutakoa mantentzea da, eta egunero bizi kalitate duinago baten alde borrokatzea.

—**Zein izan da errekupe-razioa unerik gogorra?**

- Hasieran batez ere, bihar-ramunak zer ekaniko otegun zalantzan bizitzea. Nola erantzungo zuen ez genekien. Gauzak beltz ikusten genituen. Ez geneukan baliabiderik eta gauzak zure esku ez daudenean gehiago sufritzen da, ezin dezakezu ezer ere egin-eta.

Zerk eman dio aurrera jarraitzeko indarra?


- Alabak eta senarrak zeresan handia izan dugula uste dut. Gure alahak, Jannisek, oso gaztea izan arren, asko lagundu dio amari. Heldutasun handia erakutsi du. Vicky bera ere, istripua gertatu aurretik emakume gogorra bazen, orain duda izpi guztiak uxatu dizkigu, eta bizitzeko *gogo* handia duela erakutsi du.

RESTEEK ESANA

"Bizitzan une latzak bizitzea tokatu zaio, baina beti egin du aurrera. Bizitzeko gogo handia du."

JOSE MARI VALLEJO, senarra.





ste honetako erretratua Jesus Hoyosek ekarri digu. Lehen begiratuan igan iko zenuten moduan *Juan Mugerza Krosean* ateratako argazkia da. Hain zuzen ere, 1970. urteko lasterketan atera zuten erretratua. L. Stewart korrikalari eskoziarra izan zen urte hartako irabazlea.


Argazkian ageri diren guztien izenak jakitea ia ezinezkoa bada ere, Jesus Hoyosek, bere inguruan zettzen batzuen izenak entan dizkigu. Jende multzo horren tartean identifikatzea lortu ditugunei zenbakitxo bat jarri diegu irakurleon lana errazteko asmoz. Adi beraz.

- 1- Jose Bastida
- 2- Roberto Solas
- 3- Joaquin Herrero
- 4- Fermin Unzueta (t)
- 5- Erasio Melgosa
- 6- Ignacio Arrese
- 7- "Kanario" (t)
- 8- Jesus Tadeo
- 9- Jesus Hoyos
- 10- J. Juaristi "Txabola".



OROIMENEZKO MEZA

1999ko urriaren 3an, 89 urte zituela hil zen **WCENTE LEANIZ-BARRUTIA CORTABARRIA**ren omenez **OROIMENEZKO MEZA** izango da Parrokian, asteartean, hilak 19, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde zaurretik.



EMAITZAK

(Urriak 16, 1. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA, Minixelan

- Benjamin mutilak 1111
- 10:00 Ikastoaf A- Pilar A
- 10:30 Mendaro A- Herri eskola A
- 11:00 Mendaro B Pilar A
- 12:30 Ikastola C Pilar B
- 1111 Benjamin neskek ■
- 11:30 Ikastola A - Ikastola B
- 12:00 Ikastola B- Herri Eskola B

SASKIBALOIA, Ikastolan

- Alebin mutilak ■
- 9:00 Herri Eskola A Ikastola A
- 9:45 Pilar B- Ikastola B
- 10:30 Pilar A - Ikastola C
- 11:15 ikastola D - Herri Eskola B
- Alebin neskek ■
- 12:00 Pilar A- Ikastola G
- 12:45 Ikastola B Ikastola C

ESKUBALOIA, Kiroldegian

- Infantil mutilak ■
- 9:00 Pilar A - Fleje
- 9:45 Ikastola A Arno
- Infantil neskek ■
- 10:30 Pilas A Hamaikak Neskek
- 11:15 Ikastola C - Killmon
- 12:00 Ikastola A- Ikastola B

txIrolmidularik harYlall zulten pa[92 'WEL Doera San Pedroraf lasIaltala

Jose Mah Fernandez Irabazleak probako errekorra hautsi zuen (13'50")



tjteroko zitari hut.sik egin gabe, Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari elkarteak antolatzen duen San Pedrorako igoeraren S. edizioa jokatu zen *Pilar* egunean, urriaren 12an. Eguerdiko 12:00etan 61 txinindulari, tartean 26 elgoibanar, Plaza Handitik San Pedro gainerantz abiatu ziren. Irabazlea Jose Ma Fernandez 'Suso' elgoibartarra izan zen. 'Susok' probako errekorra hautsi zuen, eta 13 minutu eta 50 segundu nahikoa izan zituen San Pedroraino dauden 4 km.ak egiteko. Bideko asfaltoa aurten berriro izanak izango du eraginik, baina ez dio meritorik kentzen irabazlearen markari. Bigarren sailkatua Felix Oyarzun berriztarra izan zen, eta irabazleak baino minutu bat eta 5 segundu gehiago behar izan zituen San Pedroko aldapa gogomak menpean hartzeko..

ELGOIBARTARREN SAILKAPENA

Jose Mari Fernandez Lariz	13'50"	J. Antonio Gurrutxaga	19'48"	Tomas Salegi	26'10"
Martin Dominguez	15'18"	Eneko Ramos	20'03"	Ion Agirregomezkorta	26'37"
J. Felix Iglesia	16'36"	Aitor Arakistain	21'01"	Ramon Bellon	27'01"
Gorka Zaragozano	17'50"	Xabier San Martin	21'12"	Asier Calleja	27'29"
Imanol Zengotita	18'23"	Iriaki Gorosabel	21'23"	Antonio Rodriguez	27'58"
Jabier Alunso	18'35"	Imanol Calleja	22'05"	Gillermo amate	27'58"
Iriigo Ortuoste	18'54"	Delfin Fernandez	22'23"	Ismene Fulgencio	28'07"
Antonio Lendinez	18'54"	Manuel Ramos	25'38"	Andoni Etxeberria	28'07"
	19'27"	Aitor Oriederra	26'10"		

- • 1999-2000
- < **Eskola Kirola programa Lu asteburuan basiko da**

Herriko hiru ikastetxeek, kirol elkarte eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz antolatzen duten Eskola Kirola programaren lehen jardunaldia zapatuan, hilak 16, jokatuko da. Ohi bezala, banakako eta taldekako kirolak eskainiko dira: eskubaloia, saskibaloia, areto futbola, eskalada, ur-parkea, mendi irteerak etb. Xake Txapelketa martxan bada ere, taldekako kirolak bakarrik hasiko dira larunbatean. Bestalde, iaz bezala, partaide kopurua 450 inguruan ibiliko da.

Avilesko judo selekzioa Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko Judokekin kontzentratuta egon da

Urriko lehen egunetan Avilesko (Asturias) 'Sanfer' judo-klubeko judokak Elgoibarko Ibai Klubeko instalazioetan egon dira judokak Elgoibartarrekin goizez eta arratsaldean entrenatzen. 22 izan dira guztira Elgoibarren izan diren Avilesko judokak, 10etik 19 urtera bitartekoak. Bestalde, Elgoibarko judoken familiak izan dira Avilesko judokak etxean hartu dituztenak eta, beraz, entrenatzeaz gain oso elkarbizitza positiboa izan dutela aipatu digute Ibai Klubeko arduradunek. "Guztira 72 lagun bildu gara, bi klubetako partaideak eta gurusoak kontutan hartuta. Esperientzia hau oso polita izan da, dudarik gabe, bi klubentzat. Gauzak honela, hurrengo batean ere bitarteko klubak eta familiak biltzeko aukerak ikusten ditugu".



EsKubaloiko 1999/2000 denbora dia genlorgralako ela luben Wah mutilak



Seniorrak

IMH ELGOIBAR. Atzean ezkerretik hasita: **Jon Ulibarri, Josu Perea, Iker Astigarraga, Jorge Puente, Aitzol Garmendia, Zigor Esnaola** eta **Jose Manuel Ruiz** entrenatzailea. Makurtuta: **Josu Iriondo, Julen Hernandez, Xabier Uribeetxeberria, Xabier Zelaia, Kepa Mendikute, Jonathan Martin** eta **Jon Aierdi**. Argazkian falta direnak: **Karmell Leon** eta **Iiigo Altuna**.

IMH Elgoibar taldeak bi partidu jokatu ditu ligan eta biak irabazi ditu. Jose Manuel Ruiz entrenatzailearentzat bigarren urtea izango da aurtengoa, eta denboraldi berrirako itxaropen asko dituztela azaldu digu. "Jokalari askok utzi dute taldea, baina 6 jokalarik igo dira jubeniletatik. Talde gaztea daukagu eta esperientzia piska bat falta zaio, baina talde honen jokatu genuen iazko denboraldiaren bukaeran Kopa Txapelketa eta irabazi genuen".



Jubenilak

PNEUMAX ELGOIBAR. Atzean, ezkerretik hasita: **Jose Perea, Aitor Rosario, Goiatz Leibar, Aitor Dorado, Oier Konde, Josu Motriko, Iban Herrero, Eduardo Etxeberria, David Bilbatua** eta **Mikel Sagasta** delegatua. Makurtuta: **Josu Galarraga, Jon Larrañaga, Fernando Etxeberria** delegatua, **Mikel Elustondo, Gorka Garaizabal, Joseba Sagasta** eta **Ion Agirregomezkorta**. Argazkian, **Eneko Kortaberria** entrenatzailea falta da.

Pneumax Elgoibar taldeak domekan, hilak 17, hasiko du liga txapelketa. Taz, Euskal Ligan aritu ziren jubenilak, baina maila galdu zuten eta Gipuzkoako txapelketa jokatu dute aurtun. Eneko Kortaberria entrenatzaileak esan digunez, "dudarik gabe, gure asmoa galdutako maila berreskuratzea da, baina dirudiena baino zailagoa izango da, Gipuzkoako Liga Txapelketa nahiko gogorra eta arraroa baita. Gainera, seniorretara igo diren jokalariek ordezkatzeko, orain arte bigarren planoan zeuden jokalariek hartu behar dute protagonismo eta arduraguztia. Ikusiko dugu nola erantzuten duten, ilusiorik behintzat ez zaie falta".

E hil A 11 T' Z A K

Futbola

Haundi 1- Real Sociedad B 1 (3. maila)
Eibar 1- Haundi 1 (3. maila)
 Elgoibar 1- Batasuna 1 (Juh, E.L.)
 Pedrusko 1- Zumaiako 2 (1. erreg.)
 Elgoibar 4- Aurrera Ondarroa 0 (Kad.)
 Hintza 2- Elgoibar 1 (1. erreg.)
 Almen 2 - Elgoibar 8 (Neskak)
 Union Txikie- Elgoibar 3 (0. inf.)

EsKubaloia

Pagoaga Elg. 11 - Consulting 12 (Kad. nes.)
 Unceta Elg. 18- Moquelas Sab. (Jub. nes)
 Gaur Elg. 26 - Arrasate Kirolok/ (Kad. mut.)
 IMH Elg. 24 - Umietako 17 (Senior mul.)
 Almen Jakion 21- Tecnonneka Elg. 25 (Kad. mut.)
 IMH Elgoibar 25 - Urola 15 (Senior mut.)

Pilota

Gipuzkoako Txapelketa
 Leon/Perea 13 (Lagunak)
 Gabilondo/Intxausti 22 (Beloki)
 AnsolalAlzibar 9 (Lagunak)
 UrretabizkaialErostarbe 22 (Beloki)
 MatalKortaberria 10 (Aretxabafela)
 Ulazia-Loiola 22 (Lagunak)

Areto Futbola

Cong. Iceberg 4- Zur Ta Lur (1. maila)
 Buenetxea 2- Zur Ta Lur 8 (Auten.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIKO jokalarik erregularrena 99/00	JOKALARIA	PUNTUAK
1- Castro	9
2- Castillo	8
3- Bravo	7
4- Zulaika	7
5- Aranberri	6
6- Polo	5
7- Alberdi	5
8- Txasio	4
9- Baqu	3
10- Caro	2
11- Fernandez	2
12- Leren	2
13- Atcorta	2
14- Ramos	2

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 15
 22:10 Zur Ta Lur - Gubi Zarautz (1. maila)
 23:10 Zur Ta Lur - Kupela (Auton.)

Pilota, Ikastolan

Ostirala, 15
 22:00 Lagunak - Herniope (Kad.)
 22:45 Lagunak - Ikaskirola (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 16
 16:30 Elgoibar- Amaika-Bat (1. erreg.)
 18:15 Elgoibar- Iintza (Neskak)
 Igandea, 17
 12:00 Elgoibar - Lagun-Onak (0. int.)

EsKubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 16
 17:00 Tecnomeca Eig. - Gaur Elg. (Kad. mul.)
 18:30 IMH Elg. - Leizaran (Sen. mut.)
 Igandea, 17
 12:00 Pneumax Elg.- Urola (Jub. mut.)

11111110[11111

4

15 ostirala

19:00 ASANBLADA
Gaia: Bazterketa soziala
Antolatzailea:
Gazte Asanblada
Gaztetxean

21:00 ZINE TOPAKETAK
"Una mujer independiente"
Antolatzailea:
Haizea E.T.
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
hezitzailea eta sexologoa
Kultur Etxean

22:15 ZINEA
"Star Wars:
La amenaza fantasma"

16 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"Star Wars:
La amenaza fantasma"

17 igandea

9:00 NAFARROA OINEZ 99
Autobusak
Irteera: Sigmako zubian
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra K. E.

9:30 UDAL
DULTZAINEROEN
KALEJIRA

10:30 UDAL MUSIKA
BANDAREN KALEJIRA

12:30 UDAL MUSIKA
BANDAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

16:30-19:30-22:15
ZINEA
"Star Wars:
La amenaza fantasma"

1 asteleena

22:15 ZINEA
"Star Wars:
La amenaza fantasma"

22 ostirala

19:00 KOMIKI
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Kokoe Komiki Elkarte

20:00 JO TA SUA
PEÑAREN BATZARRA
Kultur Etxean

22:30 KONTZERTUA
Debekatuak taldea
Gaztetxean

FARMAZIAK

Egunez Gaez

16 Yudego Escala

17 Yudego Escala

18 Bidasolo Bidasolo

19 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

20 Anduaga Anduaga

21 Yudego Yudego

22 Zabaleta Zabaleta

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko
enparanta 4, Garagarza.


Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

17 igandea Fotero

ZINEA



Zuzendaria: George Lucas.
Antzezleak: Liam Neeson,
Ewan MacGregor, Natalie Portman.

Star Wars: Laamenazafantasma

Duela denbora asko, oso-oso urruneko galaxia batean... Horrela hasten dira 'izarretako guda' ospetsuko aurreko hiru pelikulak. George Lucas zuzendariak istorio guztiaren hasierara gararnatza honakoan. Obi-Wan Kenobi moduko pertsonaia funtsezkoen haurtzarora nolakoa izan zen kontatuko digu efektu berezi harrigarri osatutako filme harrigarri honetan.

• Masaje eta Reiki ikastaroak

Surva belardendak masaje eta terapia ikastaroak antolatu ditu. Masaje ikastaroak 10 klasetako iraupena izango du, eta hasi berrientzat dago zuzenduta. Bertan hainbat teknika irakatsiko dira. Klaseak urriaren 23an hasiko dira eta larunbatero goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara luzatuko dira. Terapia ikastaroak, berriz, gorputzeko gorabeherak modu naturalez zuzentzeko metodoak irakatsiko ditu. Urriaren 23an eta 24an izango da ikastaroa. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo ikastaroetan izena emateko, 943 74 25 34 zenbakira deitu.

• AEK Eguna 90 Saran tiango da

"Euskaraz jantzi hadi eta haugi" lemapean, *AEK Eguna 99* Iparraldeko Sara herrian izango da igandean, hilak 24. Aurtan Ipar Euskal Herrian ospatuko denez, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan aldarrikatuko da, euskara ez baita hizkuntza ofiziala Iparraldean. Elgoibartik goizeko 10:00etan irtengo da autobusa igandean bertan, urriak 24, Sigmako zubitik. Izena emateko AEK Euskaltegira (Plaza Txikia, 3) edo Karobi Tabernara joan urriaren 22a baino lehen. Informazio gehiago jasotzeko hots egin 943 74 13 32 telefonora.

• Jubilatuen txangoa Errioxara

Jubilatu Etxeak, Gizartekin-tzaren laguntzarekin Errioxako Fuenmayor herrira txangoa antolatu du urriaren 27an, asteazkena. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 8:00etan. Bestalde, Jubilatuen Etxean, urriaren 6an hasi ziren loteriarren partizipazioak saltzen. Erosi ahal izateko bazkide txartela erakutsi beharko da.


• Elgelbarke VI. Komiki Lehiaketaren erakusketa ostiralean, hilak 22, inauguratuko da

Bi urtetik behin Kokoe Komiki Elkarteak antolatzen duen Komiki Lehiaketa-Erakusketa datorren ostiralean, hilak 22, hasiko da. Euskal Herri osoko komikilariek egindako lanak ikusi ahal izango dira Kultur Etxeko erakusgelan hilaren 31ra arte. Momentuz 6 komikilarik eman dute izena, baina izena emateko azken eguna gaur, hilak 15, amaitzen da. Irabazleen izenak hilaren 29an jakinaraziko dira. Lehen saikatuarentzat 100.000 pta.ko saria egongo da. Bigarren saikatuak 70.000 pta. jasoko ditu, eta hirugarrenak 40.000 pta. Euskaraz hobekien errotulaturako komikiarentzat 30.000 pta.ko sari berezia dago. Ikuslegoak sari berezi bat emateko aukera ere izango du, eta komikilarien egileak oroigarritzko plaka bat jasoko du.



• Jo Ta Suorealzale tablearen batzarra

Datorren ostiralean, hilak 22, *Jo Ta Sara* Taldearen batzar orokorra izango da Kultur Etxean. Besteak beste, honako gai hauek izango dituzte eztabaidagai: kontuen aurkezpena, hau da, diru sarrerak, gastuak eta balantzeak, kinielaren sorrera, urtean eginiko ekitaldiak eta irteerak, Donostian azaroaren hasieran egin behar den Errealeko peña edo taldeen biltzarra, Gabon Zaharreko azokan txozna baten beharra edo iradokizuna, Aitor Zabaletaren kasua, eta azkenik, galderen, zalantzen eta eskaeren txanda izango da. Batzarra arratsaldeko 20:00etan hasiko da.



• Musika Bandaren kalejira eta kontzertua

Igandean, hilaren I 7an, Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu. Kalejira goizeko 10:30ean hasiko da, eta kontzertua, berriz, eguerdiko 12:30ean izango da Herriko Antzokian. Jose Antonio Osoro, Bandako ohiko zuzendariak merezitako oporrak hartu dituzte, Txomin Mugicak izango du Banda zuzentzeko ardura. Honako pieza hauek joko dituzte: *Guadix* (P. Azpiazu), *Egyptisher inarsh* (J. Strauss), *Revival Rag 1920* (J. Steeckart), *En las estepas de asia central* (A. Borodin), *Titanic* (James Horner).

• Haizea ET,koek eskulan ikastaroa antolatu dute

Haizea Emakume Taldekoek aditzera eman nahi dute, eskulan ikastaro bat antolatu dutela. Ikastaroak hiru hilabeteko iraupena izango du, eta guztira 30 klase ordu izango ditu. Bertan, gantxiloa, bainika, punto kruz eta beste hainbat gauza ikasteko aukera izango da. Klaseak astean behin izango dira eta ordu-tegiari dagokionez, goizetan 9:30etik 11:30era izango dira eta arratsaldetan, berriz, 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko epea azaroaren 1etik 15era bitartekoa da. *Haizeakoek* plaza mugatuak dituztela jakinarazi digute eta Interesatuok Pitxintxura jo dezakezuela. Haizeako bazkideek 3000 pta. ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 5000 pta.

Partikularrak

Lana

• ESKAINTZA •

- Mutila behar da astegun arratsaldeetan eta asteburuetan tabernan zerbitzari lanak egiteko. 17 943 74 28 97
- Ostiraletan etxeko lanetan pare bat orduz jarduteko pertsona bat behar da. 17 943 74 43 50
- Asteburuetan sukaldean laguntzeko neska bat behar da. Is 943 74 37 71
- 18 urtetik gorako neska behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ostiraletan eta larunbatetan. ar 943 19 15 05 (Ostiraletan eta larunbatetan deitu)
- Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. a 943 74 10 46 (21:(f0-22:00))
- Lau urteko umea zaintzeko esperientziadun neska behar da. Tr 943 74 12 05/943 74 36 50

• ESKAERA •

- Umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Egun osorako edo arratsaldeetarako. a 943 74 42 50 (Ivla Jose).
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. ar 607 49 73 23
- Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Gauetz nahiz egunez. a 943 74 27 78 atziar
- Erizain laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. w 609 77 01 33

Salerosketak

- Seat Ibiza {SS-AC} saltzen da. Motor ona. Itxiera zentralizatua eta laristal jasogailu elektrikoak. .rr 617 92 72 96 (2:00etatik 22:00etara).
- Landetan janita dagoen karabana salgai. a 943 74 31 02 (Maribi)
- Izotza egiteko kamara industrial salgai. a 943 74 08 15 /943 74 38 73 (Mari)
- Aprilia Sonyc motorra salgai. 1.000 km. Urtebete eta egoera onean. 943 74 10 32 (eguardian edo gauetan).

- Matematika, Fisika eta Kimikako klase partikularrak ematen ditut. Baita LOGSEko 1. eta 2. mailak, eta Hezkuntza profesionala ere. Talde muniztuak, 4 edo 5 ikasletakoak. Esperientziaduna (Injinem industrial). a- 943 74 13 11 (Javier)
- 2. LOGSEko Elektroteknia, Mekanika eta Teknologiako ikasgaietarako partikularrak emango dizkidan pertsona behar dut. a 943 74 13 63
- EGA eta First Certificate tituludun Injinerutzako ikasleak LH, DBH eta LOGSEko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke. tr 943 74 39 69 (Celia)
- Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet LH, DBH eta LOGSEko ikasleei. Tr 943 74 45 75 (Mariage)
- Matematika, lasika eta kimikako partikularrak emango dizkigun pertsona behar dugu. mr 943 74 13 63
- Marrazketa teknikoko klaseak ematen ditut. rr 943 74 43 98 (Gauetz. Ifiaki)

Garaleak

- Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Ameaitormn. tr 943 74 15 16

Etxebizitzak

- Pisua alokatzen da Dehan ekainerrarte. u• 943 74 13 39 (Ane)
- Pisua salgai Arregitorren. 3 logela, bi bainu, egongela, trasteroa, sukalde berria eta kalefazioa. a 943 74 45 91 (16:00etatik 22:00etara)
- Benidormen apartamentua alokatzen dut. Levanteko liondartzan. Parking-a, igerilekua, garbigailua eta telebista ditu. Tr 943 74 38 27/943 74 20 31
- Bi pertsona bizi diren etxebizitza batean, bi logela alokatzen dira. Interesik baduzu deitu ☎ 617 57 30 47ra 121:00etatik aurrera).
- Elgoibarko erdigunean pisua partekatzeko pertsona bat behar da. ar 607 72 55 70 (18:00etatik atinera).
- Pisua alokatzen da Deban. Imilaren erditik ekainera bitartean. Altzariek. tr 943 12 15 41/943 19 10 28 (Eha)
- Pisu txikia, berria eta eguzkitsua alokatzen da ar 943 74 42 26 (iluntzean).

OHARRA:

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Bestelakoak

- Perla urdina daukan urrezko eraztuna aurkitu nuen eta parrokiko sakristian utzi dut. Bertan pultsera bat eta erloju bat ere badaude.
- Larruzko kartera hat galdu nuen Herriko Antzokian hilaren 12an; barman Euskal Mendi Federakuntzako giltzekin. a 943 74 04 15 (eguerdian deitu, Elector)
- Merkatuan denda berriua traspasatzen da. te 943 74 25 17
- Intilaren 26an, Aubixatik San Pedrorako bidean ume baten jertsea aurkitu nuen. Udalexpera eraman dut.
- Gaztetxerako sofak edo hutakak behar dira. Butaka edo sofa zaharrak badituzu botatzeko, jarri Gaztetxekoekin kontaktuan. Eurak arduratuko dira jasotzeaz, mr 943 74 35 72
- 1970ean jaio eta Ikastolan ibili zirenen afaria hilaren 23an egingo da. 20:00etan Malape tabernan edo 21:30etan Txarridunan. Afarint joan nahi duenak Txarridunan eman dezala izena.
- Neska talde batek dautza kontemporaneo edo jazz estiloko dantzak erakutsiko lizkioken pertsona bat behar du. 717 943 74 18 06
- Telebista edo bideo zaharren bat badunt eta botatzekotan bazabiltza, gustura hartuko genuke. ar 943 74 19 35
- Esperanza izena idatzita duen ailarrezko pultsera galdu nuen larunbatean Jubilatuen Etxetik Sigmara bitartean. tr 943 74 29 21
- Logela alokatzen da Arregitorren. ar 943 74 18 81 aluntzean deitu. Juani}

Agurrak

- Zorionak Sergio Martini oso azkar errekuperatu delako. Ikastolako 5. maila osoaren partez muxu haundi bat. Aupa Sergird Zure lagunak.
- Zorionak Jesus Mariri gaur, urriak 15, bere urtebetetzea delako. Familia osoaren partez. Ondo pasatu eguna.

- Zorionak Garaziri hilaren 22an 3 urte beteko dituelako, Familia gaztiaren partez eta batez ere ahizpa Maialenen partez.



- Zorionak Mjkeli hilaren 12an urteak hete zituelako Familia guztiaren partez. Muxu haundi bat!



- Zorionak Jabiri eta Estheri eta urte askotarako. Jabiren lankideen partez. Ondo pasa ezkontz bidaia.

- Oraindik ez dakit 73 edo 3 zenbakia aurretik jarri hehar dudan. Berdin da, harrutik gazte zaudela uste baduzu, segi atnera! kartpokoentzat gaur egungo kosmetika onak erabili eta kitto. Zorionak neskatxo, ondo pasa etxeko guztiakin, eta kafea hartzeko ordua gaizki datorkidanez, zer moduz afaritxo bat? Musu handi bat Dorleta, Iker, Jose NP eta badakizu noren partez.




- Zorionak Ainarari urriaren 17an 3 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



- Zorionak Iker Odriari urriaren 14an urte bat bete zuelako. Aneren partez muxu haundi bat.



- Zorionak Josuri hilak 17an 4 urte beteko dituelako. Mikelen, Ainhoraren, Nerearen eta gurasoen partez, Musu haundi hat eta ondo pasa eguna,



- Zorionak Egoitzi hilaren 13an urtebete egin zuelako. Familia guztiaren partez. Aupa mutil haundi.


2000ko Gida Komertz

Gida

Komertziala 2000

Zurekin pentsatuta
gida praktikoa,
hurbila,
eta konpletoa
prestatzen hasi gara.

BOIBAR eta MENDAKO




00

BARREN
ASTEKARIA

1999ko Gidan agertu ez bazinen
edo daturen bat oker bazegoen

deitu **943 74 37 04** lietonora

1



nnnmn tin nn nntn
o o'uo 1 ouLou uo o on

nT IrTio - nn tronoo Tzn
o oo o uo oLoou Ln;

Fooio LJNIT? o oror nn oro / Tororpn
LI TV uouch / TTTTTI.

HYUNDAI ACCENT

AIRE GIROTUA OPARI EDO BALIO

BEREKO DESKONTUA

***1.381.000 pta.tik AURRERA**

(8.299,913 EURO)


HYUNDAI LANTRA

EDO BALIO

BEREKO DESKONTUA

***1.989.000 pta.tik AURRERA**

(11.954, 13 EURO)



HYUNDAI ATOS

AIRBAG-A OPARI

EDO BALIO BEREKO DESKONTUA

***1.130.000 pta.tik AURRERA.**

(6.791.44 EURO)

3 urteko 100.000 km
120 puntu SALTOKI

AUTO EDER BATEN JABE IZAN NAHI BADUZU, ERREPARATU OBJEKTIBO HAUET. HYUNDAI ACCENT, LANTRA eta ATOS ORAINTXE DITUZU BEGIBISTAN. JANTZI ARROPA EROSOA, KIROLERAKO OINETAKOAK ETA ZATOZ HURBILEN DAUKAZUN HYUNDAI KONTZESIONARIORA. ZAIN GAUZKAZU.



Mendaro Autoak

Elgoibar - OIaso, 27 943 74 32 00

Elbar - Otaola, 27 943 70 13 82

Irun Pinar, 21 943 61 02 00

Beasain - Nafarroa, 45 943 88 34 00

Donosti - Zumalakarregi, 1 - 943 31 22 00

BEZEROENTZAKO TELEFONOA: 902 246 902

*Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako prezioak. MatukuTazio zerga, garraio BEZa, matrikulazioa, plakak eta promozio deskontua barne. Hyundai Espaiak eta bere kontzesionano sareak elkarlanean egindako promozioa. Promozioak hil amaiera arteko bakoa du stock-ean dauden autoentzat.